

Salentin Enbeitars onnenaldia Bilbon

(1983.eko Maiatearen 29an)

Balendin Enbeita, ezaguna dugu aspalditik, betidanik, Bizkaian Lehenago ere hartua du Omenaldi bat Donostian, 1973. enean. Omenaldi hori zela eta Auspoa Liburutegiak (1974) *Nire apurra* deitutako bertso bilduma argitaratu zuen.

Ongi merezia zuen Bilboko omenaldi Balindinek bizitzan zehar hain gogotsu, ham adoretzu eta hain gihartsu burukatu baitu euskararen eta bertsolariaren alde.

Urteak joan urteak etorri, hor dugu orain aguretua, baina oraindik gogo eta bizitasunez beterik zeresan eta zererakutsi ugari duela. Balendin Enbeita urte askotan Bizkaiko bertsolariaren argimutil izan dugu. Berak zaindu du gure arteko bertsolariaren txingor gorria.

Behar bada, bere aita «Urretxindorra» ospetsuaren itzalpean edo bizi izan delako, ez da behar adina neurtua izan Balendinen bertsolaritza. Baina horrek ez dio inolaz ere merezimendurik kentzen Balendinen lanari. Bizitza osoan, hor eta hemen, bertsoaren euskararenganako sua eta garra erein duen gizona dugu berau,

Honen inguruan, gainera, bertsolari eskola eder bat sortu zuen. Bizkaia eta bertsolariaren ospe handia ekarri dion eskola. Hortik sortuak ditugu Lopategi eta beste hainbat.

Ongi merezia zuen, ba, Bilboko, Bizkaiko omenaldi handi hori, gure kulturaren aide hain gartsu jokatu izan duenez.

Gaur egunez, bestalde, gure inguruetan Balendinek ereingo bertsozaletasunak halako arrakasta izan duen une honetan, ez da bat ere harrizkoa Bizkaiko bertsolari eskola guztiek elkartu eta heuren sortzaille izan denari halako omenaldia eskeintzea. Bidezkoa zen eta hala egin da. Bakoitzari berea zor zaio eta Enbeitari Bizkaian bertso zaletasunaren birbiztzaile izatea.

Giroa ere, piskanaka gorituz joan zen. Urtean zehar Bilboko Areatzako Zuhaitzegian izan diren bertso saioaldiek jendearengan izugarritzko bertsozaletasuna sortu dute. Horrela, saioaldi guzti horiek burutzeko Balendin Enbeitari omenaldi hori egitea erabaki zen. Hain zuzen, Bilboko *Buenos Aires* antzerkitoki.au egin zitzaion omenaldi eder hori.

Aurreko egunetan, egunkarietan eta ere, sarri aipatua izan zen gure Balendin Enbeitaren lana eta bertsolaritzaren historian izan duen eragipena. Deia-k ere orri zabalak eskeini zizkion.

KARMEL aldizkari honek, omenaldi horretako bertso eta zehaztasun guztiak osorik jasoterik ezin badu ere, gure Balendin Enbeitari aipamen eta goratsarre beroa egin nahi dio. Eta hori zor diogulako. Gure artekoa izan dugulako.

Izan ere aspaldidanik dugu ezaguna Balendin Enbeitari *Karmel* aldizkari honetan; bere hainbat bertso argitaratu dira bertan eta lehenago *KarmeVen* aurreko izan zen *Karmengo Amaren egutegian*.

Zorretan gara, ba, eta bidezkoa da zor horiek nolabait ordaintzea. Horretara datozkizue lerro hauek. Balendin Enbeitari, Euskal Herriko bertsolari eta bertsozale guztiek eginiko omenaldiaren oihartzun izan gura dute orri hauetan biltzen diren bertsoek.

Esan bezala, ezin hemen bertso guztiak bildu, eta horregatik egun haundi horretan kantatu zirenen artean batzu bildu eta eskeiniko dizkizuet bakarrik.

Lehen eta behin, nola ez, Balendinek berak egun horretan sortuak. Gero bere seme-alaba, loba eta ilobenak. Azkenik, beste zenbaitenak. Ezin inolaz ere denak eskeini aldizkari honetako orriak mugatuak ditugu eta.

Beste bertsolaririk ugari ikusi bazen ere, hona hemen egun horretan esku hartu zutenen zerrenda: Sagardui biak, Mufiukorta, Pefiagarikano, Olalde, Areitio, Iturri (Pedro), Altuna, Mugartegi, Eibarzabal, Uxune Iriondo, A. Ramon Etxebarria, J. Ramon Bilbao...

Omenaldia bera, bi zatitan aurkeztuko dizuet. Lehen eta behin omenaldi ofiziala, hots, *Buenos Aires* antzerkitokian egindakoa. Gero, bazkal ostean, *Nerbion-en* egindakoa. Bietako bertsoak eskeintzen dizkizuet.

Lehenengo zatian, antzerkitokian egindakoan, bertso saioaldi luzea izan zen, tarteka trikitixa eta zirela. Bertso saioaldi horretan ondokoek hartu zuten parte: Amuriza, Lopategi, Azpilaga, Lazkano, Lasarte, Lizaso, Xanpun eta Enbeitak. Bazkal ostekoan, osterara, nahi izan zuten guztiek.

A) Antzerkitokiko saioaldia

Hasieratik oso ongi antolatua izan zela aitortu behar. Txalo beroak merezi dituzte bai antolatzaileak, bai partaideak, bai aurkezlariak. Eskerrik beroenak, baita ere Bertso-saioaldi hori burutzeko laguntza eman zuten guztiei.

Goizeko saioladi honek hiru atal izan zituen: Bertsolarien agurrak. Zortzi Bertsolariren saioaldi luzea. Balendin Enbeitak eginiko opariak jasotzea.

1) Bertsolariek Enbeitari eginiko agur batzu

Aiberdik

(Enbeitaren lagun zaharra)

Euskal Herriko larroza fina
egun on bana danori.
Baina aparteko agur anaikor bat
Balendin Enbeitari.
Une gatxetan ibili zinan
herririk herri kantari;
da zenbat gauza esan zeuntsezan
hotan nago herriari.
Besarkada bat itzultzen nator
maitasunaren ezaugarri.

Pujanak

[Enbeitaren lagun zaharra]

Poza haundiagaz ikusten dabe
gaur hemen neure begiak;
bertsotan bat omenduteko
batzarrera etorriak.
Baita agurtu gura dodaz gaur
jai honen zuzendariak.
Jaunar, eskerrak oindikoan
ba dauka gure herriak
kultura onai jarraituteko
bai gazte ugariak

Ai, zu Balentin, gure bertsoa
egon zanean gaixorik,
zuk bertsoetan jarraitu zendun
beti adorez beterik.
Omen eder bat merezi zendun
esanik ez zan beharrik;
Gipuzkoaldetik zaindu ba eben
Uztapidek eta Baserrik;
Gure Bizkaian zuri eskerrak
zeuk zaindu zendun bakarrik.

Iturrik (Felix)

Hau zori baten, gu jaio ginan

hau Ariatza auzua.
Zure onduan nik neban
lendabiziko pausua.
Zure onduan ibilitzea
beti izan da gozua;
Zu izan zera Ariatzako
bertsolaritzan maisua
bertsolaritzan maisua eta
gure bigarren gurasua. (bis)

Paulo Iriazabalek

Balendin lagun neuk ere zeuri
pozik bertso abestia,
gaurko eguna guztiantzako
dalako pozgarria.
Ikusirikan zelan herriak,
eskintzen dautsun saria.
Ba dakigu, ezin ordaindu
zuk egiten duzun guztia.
Euskaldin aide zenbat Ian
ixurita izerdia.
Euskal ohiturak beti sendotzen
zabaldutako bertso ta euskeria;
bost seme jator bertsolariak
bertsolari alabia.
Lobak: Deunoro, Jesus Mari,
Ireneo Ajuria;
beste emakume bat
bertsolaria
juan jakun monjia.
Sendi, auzo, herri t'erbeste
zenbat herida jasia.
Gerra osteko lupetza atzeak
nahiz dirudi ipetargia,
Balendin zu zinan, benetan dinot
Bizkaiko eguzkia.
Urretxindorrek bedeinkatzen zaitu,
ba daukotala fedia,
ta bere segidari opa
osasun eta bakia.
Siglak itxi, sigletatik

ba dator asarria.
Sigla guztien ganetik beti
dalako gure aberria.
Aurrera Balentin haundia,
maitasun iturria.
Gora Balentin, gora ta gora
Klara bere emaztia.

Amurizak

Ustitxan jaio eta ezkontzak
Zalalera eroana.
Ariatzako auzategian
bertsoak edan ebana.
Aurrekoaren ildotik hasi
eta ondorengoana.
Seme-alaba, bai eta loba
ta non diran aita-ama.
Ehun mila mende luza daitela
Urretxindorraren fama. (bis)

Lizazok

Nik e(r)e bihotzez zoriontzen det
Aitona zoragarria.
la larogei urte honetan
zerbitu ditu herriak.
Horrek bertsorik ez du ukatu
nahiz egon galeraziak.
Urte batzutan izango zuan
ekaitze izugarria
Hau da negurik latzenez e(r)e
ixildu ez dan txoria (bis).

Lopategik

Neure auzoan ezagutu dot
beti zalatsu eta fin.
Umetan kantuz omen zebilen
larogei urtekin berdin.
Ondra dezagun bertsolari ta
bertsozalean garrakin.
Bertso munduan zarrean eta
gazteena dogu Balentin (bis).

Jon Enbeitak

Txotxo geurian espiritua
Urretxindorraren garra,
izan da zure bizi latzean
iraupeneko indarra.
Gudako zauri eta nekeak
gizpetako negarra,
abertzale ez direnentzat
nahiko misterio larra.
Ikusi zenduan sustraiak jaten
erdararen koko-harra.
Eta berriro sendatu zendun
euskara amaren lizarra,
bertsoen bidez loretu zedin
bere errama igarra;
baina ez zinan gudu honetan
aita, ibili ba(a)karra.
Buztari lagun beti zenuen
Klara emazte azkarra.
Onetsen dotsen, eban gauetan
egun gudan giharra.
Bertsolarien sustarra,
bertsozaleen izarra.
Nahiz ez dan ordaintzen erre
bizi guztiko beharra;
Har zazu, aita, zure herriak
eraan nahi dautsun eskarra.

Aspilagak

Aita ala zan, semea berdin
Bizkaiko urretxiiiola.
Enbeitatarren odola.
Bizkaian inoiz bertsorik ba zan
gaur bai, bertsoa dagola,
gu zure adar batzuek gara (bis)
zu zara gure arbola.

Ajunak

Euskal Herriak ezagutu du
zure odolaren gradu.

Nahizta espetxe zigorrak izan
jarraitu duzu ondradu.
Etsaien aurka gau eta egun
hainbat neke ta ordu.

Abertsale onan itzala beti
Balentinek dausku zaindu;
Zintzo jokatu duen gizonak
bere ordaina behar du (bis).

2) Bertsolariek saiaaldian kantatutako bertsoak

a) Bertsolaritzaren **omenez**

Bertsolari zar bihotzekoak
zuekin ginan hasiak.
Orain kantatzen ditugu pozez
zuengandik ikasiak.
Pare gabeko Urretxindorrek
ba ditugu ikusiak,
Nik zoriontzen ditut bihotzez
orain arteko guztiak (bis).

Xanpunek

Bertsularia ote dago, ba
dohain guzien jabea.
Behintza egun bat goستن dugu
Oroit parerik gabea.
Kamus dabila bertsolari bat
kasik irudik erlea.
Jendeak soildun, barnetik hartzen
haren hitz edo elea.
Hauez ote da gure hizkuntza
bizi dela seinalea (bis).

Lazkanok

Bertsolaritza ez da berria,
dogu oso gauza zarra.
Haien leku bat ondo betetzen
guretzako zail xamarra.
Baina hortara jarri dezagun
buru-bihotzen indarra,
atzoa bezin lorez jantzia
gertatu dedin biharra.

Enbetiak (**Jon**)

Bertsolarien omenez, beraz
nere goratzarre hitzak.
Zuek loretzen duzue gure
Iparragirren haritza.
Kendu dezagun erdarak daukan
euskaraganako gaitza,
Bertsolaritza bait da Euskadin
euskara amaren bizitza (bis).

Bart eglndako **ametsak**

Bai zuen seme alaba batzuk
ginak Iparra aldera.
Nere ametsa berrituz berriz
elkarrekon egon gera.
Ni horrezela atrebituko

muga txar horren hestera,
ta egun pozik sartu direla
bakotxa bere etxera.
Ta nik lagunduz etorri hunat
Balentinen gorestera (bis).

Lazkanok

Amesetatik, kanpo ez leike
gaur gauza haundirik pentsa.
Baina lotuta dagonak ere
ba dauka here defentsa.
Oso zuria ikusia det
Espanolen ikur beltza;
Askatasuna eskatu diegu
eta eman dute baietza.
Betiko egi behar genduke
bart egin dedan ametsa.

Egi bihurtuz ikusi nahia
ametsaren ondorena,
eskabide bat luzetzen dot gaur
zuen aurrez dagoena.

Sustrai zarretik sartu bai dira
agindu edo ordenak;
gaur ilunean amets gozoak
kendu dizkit niri penak,
Korte Inglesean ere euskaraz
egingo dutela denak (bis).

Enbeitak (Jon)

Bilbon alkate nintzan da, hara
ze eratako planekin.
Haundikieri jaboia ez eman
kanpoko indarrei berdin.
Herri honekin bat egin eta
beragaz lanari ekin.
Hibai zikina garbitu eta
beti euskaraz hitz egin.
Lengo euskaidun nortasun sena
Berriz Bilboratu dedin (bis).

3) Balentin Enbeitak eta here sendjkoek kantatutako bertso-xorta (eskerrak emanez)

a) Belentin Enbeitak

Udabarrian zelai baratzak
loretan gorri ta zuri,
Txoriak pozcz kantuz eskerrak
emoten Egileari.
Neu ere denok eskertu nahirik
pozikan nator kantari,
ta hainbeste txori ikusten ango
haundi-tixiki zar-gazteri,
Omenaldi bat pozik eskeintzen
txori txikitzar bateri.
Hainbesterik izango zanik
eneban uste nik hori.
Ordaintzekorik ez daukat baina
bihotza daukat opari.
Nere besarka anaikorrenak
jai hoen egileari,
eta euskara amaren partez
eskerrik asko danori.

Gizon bezela kontzentzi garbiz
egia nahi dot autortu,
neure bizitzai begiratuta
ba daukat zertaz ohartu.
Zergaitik naizen, gaur nazen beste
argi nahi nuke agertu.
zorionian buztartu.
Samin haundian poztu nabena
neke aldietan indartu;
sendi euskaidun, abertzale bat
hastea nabena lortu.
Beti ixilian baina lanean
ez dana inoiz aspertu.
Omenaldi hau berai eskeini
gura neunkino eskartu;
emazte Klara herri txalo hau,
nere bihotz hau hartu.

b) **Olats Eiguren
(ilobak)**

Beti ezin da negarrez bizi
pozak be badu indarra;
gaur inoiz baino geiago dugu
indar horrexen beharra.
Batu dezagun itxaropenaz
bizi-naiaren deihadarra.
Herri bizitzak senti dezala
askatasunaren garra.

c) **Oi**

(ilobak: 4 urte)
Handia zara gero
aittite Balendin
begira zenbat lagun
daukazu zurekin
hastean gura neke
izan zure berdin
damutu ez zaitez
loba Oihanekin.

d) *Zibm-a* Enheital

(6 urteko iloba)
Aittite Balentifien
omenaldi jaira
haurrak aitagana lez
gaur etorri gara

mosutxo bat aittite
ta amona Klara
zeukaz ez da inoiz
ahaztuten Zihara.

e) **Abel Enbeitak (semeak)**

Mutii gaztiak, zer esan ere
ez daukat errez asmatzen;
bihotza daukat gainezka eta
egiak zernai salatzen
Zugandik, aita, ikasi nuen
gure euskara maitatzen;
Zugandik, aita, ikasi nuen
bertso batzuek kantatzen.
Orain naukazu denen aurrean,
egin dozuna eskertzen (bis).

f) **Libe Enbeitak (alabak)**

Herri ta rizkuntza helburu
maitasuna lokarri;
bizitzan igaro duzu
hainbat neke ta larri.
Bihotz urratuz bertsotan
garrasi duzu sarri.
Zure ejenpluz gaituzu
semeak iratsarri.
Eta egi maitasuna
bihotzean ezarri.
Helburu berak gaitu gaur
bateratzen elkarri.

B) **Bazkal ondoko saloaldia**

Honelakoetan jazo ohi den bezala, bazkal ondoko saioa berez sortutako giroak ekarritakoa dugu. Besterik beste, gehiagokorik izan bazen ere, hogeita hamairu bertso ditut jasoak, interesgarrienak eskeintzen dizkizuet.

a) **Urretxindorrarenak (hart alaba eta Balentinen arrebak kanlatuak)**

«Biba Espana» didarka dagoz neuk ere «Viva» dirautset. Gorrotorikan ez dagolako nigandik Espanarrentzat. Katolikuek jakin biogu zer dinon goiko juezak. Inoren gauzai bakian itxi zaindu beria bakoitzak. «Viva Espafia» berriz dirautset izan bei Espanarrentzat, baina geuk ere «Gora Euskadi» geuria da ta geuretzat.

Maixu batek bein eskolumiai esateutsen goiz batian, Espafia oso haundia zala eta indartsueneren aldian. Amerika ere menpetu ebalá indarrez beingo batian. Eta Espaiiako bandera jarri Amerikako lurrian. Ameriken ez zirien gauza bandera jarri artian. Espafiarrenak izan zirian ordutik aurrerantzian. Eta mutilak hau entzutian, poz pozik jarri zirian. Berrogeiren bat bai alkartu juteko arratsaldian; zapi zuri bat ipinten dabe makila baten gainian; makila hori ipinten dabe maixuen beratz erdian. eta ango makatz ta madari danak batuten hasi zirian. Eta maixuak hau ikustian, «Zer dabizue lapurtzar horrek inoren gauzak hartzian?» Eta mutilak. danak batera gogor erantzun eutsian: «Ixi, maixua, astu ein jatzu

zer esan dozun goizian. Geuk jarri dogu ikurrin hori geu nagusi baratizian. Eta haugaitik lapurrak baga, orain gure antzian zuk esandako Espafiarrek be lapurrak izan zirian».

b) **Baletisi Enbeltak kaniatua**

Agindu dauste bertso luze bat gaur hemen abestuteko. Lelengo mailan, bertsolariak bihotzez agurtuteko. Et'emakumeak esan daustie zerbait hemen azaltzeko. Orain artian ikusi dana argi dot nik autortuko len ere sarri esana daukat gaur be ez da txarto etorriko eta gizonak hau esanarren zelorik eztabe hartuko. Emakumea eta euskara dauden indarren mendeko. Sasoiá dala ipokrezizko mitokeriak kentzeko, Emakumea ta euskal giroa gizonen maila jartzeko. Onak dituguz iraultza-andian anaiari laguntzeko, lo daudenak esnatzeko, epelak berotutzeko, tentelak astindutzeko. Emakumea lango artistarik gutxi dago horretarako, heuren laguntza beharreko da askatasuna lortzeko.

cj) **Besteiako zenbait bertso**

- 1) Gaur Enbeitaren izena degu gorengo erabilia, bera dalako bertso maixu eta euskara zalia.

- Giro honetan jarri daiguzan baserria eta kalia;
Hau da Euskadi benetakua eta abertzale familia.
- 2) Larogei urte luze ta zabal munduan zaizkizu, jaunak; eskertu naian bildu zaizkizu adiskide ta lagunak. Jan eta edaten bertso ta soinu hauxek dira jardunak bukaerarik ez hike behar gaur bezelako egunak.
- 3) Hau ere esan beharra dago zerbait esaten hasita; Bihotz bihotzez agurtzen det gure Balentin Enbeita. Zuregandik daudela pixkat gauza horretan hezita, gaur omena irabazi dezu ondo asko merezita.
- 4) Aiton batentzat ezin eskini inoiz erazi gogorrik, neure bizitzan ez dot ikusi holako gizon bizkorrik; Ekintza danak beteak ditu ez dauka ezerren zorrik, Berriz ez degu ezagutuko halako Urretxindorrik.
- 5) Gaurko bertsolai gazte maiteak hau ezazue aditu, gure herriak iraun dagian indar denak behar ditu. Bertsolai zarrak geure sasoian ezer ez geuntzan ukatu. Beti kantari ibili ginan nahita kartzela jokatu, eta gaur bere arloan gagoz barrero behar bagaitu.
- 6) Urretxindorren jatorri zarrak nahiko merito ez ahal du! Nerbioneko hibai ertzera hainbeste euskaldun azaldu.
- Anaiartean eta umorez denok alkarrez bazkaldu Nahita etsaiak beren gorrotoz eta zigorrez zapaldu, geure ohitura ta uraorea oraindik ez dogu galdu.
- 7) Egun honetan bildu gerade gu bertsolari ugari. da Balentinen goratzarrean kantari gerade ari. Une latzetan ziozulako laguntasuna ugari, omenaldi hau ere badoa bere emazte Klarari.
- 8) Ai! Mendizabal, goguan daukat zuk oroitu dezuna; barru barrutik azaldu dezu daukazun biguntasuna. Guk ere egin nahi diogula berari zen batasuna, alkartasunak osatuz du gizon zarren osasuna.
- 9) Merezi duna jasoten dago gaur gure Balentin zarra. Bazkal ondoan arrazoi onak hemen doaz barra barra. Denon euskara, denon bertsoak gudarien su ta garra. Euskal Herri hau askatuteko degu danoren beharra.
- 10) Ito nahi zuten behin betirako Balentinek zun birtute. Hori dala ta espetxeratu Kate gogorrez lotute. Baina merezi bezala Bilbon ongi eskertu zaituzte. Begira zazu, ene osaba, Herrian zer degun uste, Espaini danak ez du balio Balentin Enbeitan beste.
- 11) Pozez betean etorria naiz ni gaurko besta hontara;

kasik dezaket leku goxo hau
zeru bateri konpara.
Enbeitatarrak, erran dezagun,
bertsolarien altara;
Esan behar det ta opa ere
hauxe egin beharra da,
oraino luzaz aurki dezagun
Balentin hau eta Klara (bis).

Kimuz utzia baidu baratza
lepondoraino betea.
Hau da gizon bat sekula baino
poztuago egotea.
Hala Balentin, hau izango duda
egun haundi ta maitea.
Haundiago dan gauz bakarra da
Zazpirak bat egitea (bis).

12) Gure Balentin erdi gaixorik
ibilia zen lenago.
Klarari esker mantentzen zaigu
zartzaroan orain sano.
Hargatik biak merezi dute
hainbeste txalo ta grado.
Berari esker zuek bezela
kontuan jarria nago.
Bilbo sekula ez zela izan
gaur baino euskaldunago.

14) Zazpirak baten dehiadar hori
da Nerbioiko algara.
Baina ez pentsa urte guztiko
bete dogunik ganbara.
Ai! zu, Balentin, bihartik gora
gu nunbait galduko gara.
Zure etxean lagun bakarra
izango da zure Klara.
Ai- bertsolari onik ez dago
emazte onik ez bada!
lara, lara, lara, lara,
emazte onik ez bada!

13) Denok pozikan eskertzen degu
Balentin balientea.

Biltzaile-aurkeztailea
Paixl Uribarren